



Ayuntamiento de
Pamplona
Iruñeko Udala

ZERBITZU-GUTUNA

**Deialdia, herritarren partaidetzaren
esparruko irabazi-asmorik gabeko
herritarren elkarte eta entitateei diru-
laguntzak emateko.**

ZERBITZU-GUTUNA

DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA, IRABAZI-ASMORIK GABEKO ENTITATE ETA TALDEENTZAT

AURKIBIDEA

1	IDENTIFIKAZIOA.....	3
1.1	ALORRA.....	3
1.2	JARDUERA NAGUSIAREN DESKRIBAPEN OROKORRA.....	3
2	EGINKIZUNA, ESKUMENAK	3
2.1	EGINKIZUNA.....	3
2.2	ESKUMENAK.....	4
3	ZERBITZUAK, KONPROMISOAK ETA BETETZE-MAILAREN ADIERAZLEAK.....	4
4	ZERBITZU-GUTUNAREN KUDEAKETA.....	5
5	ARAU ETA LEGEEN ZERRENDA.....	5
6	ZERBITZUEN ERABILTZAILAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.....	5
7	LANKIDETZA ETA PARTE-HARTZEA, ALORRAREN ZERBITZUAK HOBETZEKO.....	6
8	IRADOKIZUN- ETA ERREKLAMAZIO-SISTEMA.....	6
9	JENDEARI ARRETA EGITEKO HELBIDEAK ETA ORDUTEGIAK.....	7
10	UNITATE ARDURADUNA.....	7



ZERBITZU-GUTUNA

DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA, IRABAZI-ASMORIK GABEKO ENTITATE ETA TALDEENTZAT

1 IDENTIFIKAZIOA

1.1 ALORRA

Herritarren Partaidetza, Gazteria eta Kirola.

1.2 JARDUERA NAGUSIAREN DESKRIBAPEN OROKORRA

Diru-laguntzen deialdiko urteko kudeaketa, norgehiagokako araubidean diru-laguntzak emateko Herritarren Partaidetzaren esparruko irabazi-asmorik gabeko herritarren elkarte eta entitateei.

- Deialdiaren agiria urtero diseinatu eta prestatzea, eta aipatu deialdia argitaratzea.
- Inprimakiak jaso eta kontrolatzea. bai eta eskariarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa nahiz argibidea ere.
- Eskariak baloratzea.
- Eskariak ebatzi eta jakinaraztea.
- Ordainketa kudeatzea.
- Frogagiriak berrikustea, eta fotokopiak nahiz fotokopia konpultsatuak kudeatzea, eta eskatzaileei jatorrizko dokumentuak ematea.
- Betetze-mailaren balioespen-txostena egitea.

2 EGINKIZUNA, ESKUMENAK

2.1 EGINKIZUNA

Herritarren elkarte eta entitateei emateko diren diru-laguntzen araubide orokorra arautzea, gizarte-dinamizazioaren eta -partaidetzaren aldeko proiektuak gauzatu ditzaten eta gizarte ehuna indartu dezaten, horretarako jarduerak eginez:

- Auzo-elkarteek, kultur koordinakundeek eta jai batzordeek hiriko auzoetako festak antolatzeko aurkeztutako proiektu ludiko edo jai girokoak, non herritarren parte-hartze aktiboa bultzatuko baita.
- Aisialdiaren eta denbora librearen alorrean herritarren bizi kalitatea eta ongizatea sustatzearen alde lan egiten duten entitate edo erakundeek aurkeztutako proiektuetarako, jarduera iraunkor zein puntualetarako, batez ere helduekin eta hirugarren adineko jendearekin egitekoak badira, eta herritar guztientzat zabalik badaude eta herritarren parte-hartzea bultzatzen badute. Kanpo gelditzen dira helburua eta jarduna haur eta gazteei bakarrik zuzentzen dizkieten entitateak eta elkarteak.
- Beste erkidegoetako edota atzerriko komunitateak ordezkatzan dituzten entitateek kulturen hedakuntzarako aurkeztu dituzten jarduera-proiektuak, baldin eta Iruñeko herritarren parte-hartzera irekita baldin badaude, kulturartekotasunaren, integrazioaren eta elkarbizitzaren topaleku gisa, denbora librearen arloan.



ZERBITZU-GUTUNA DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA, IRABAZI-ASMORIK GABEKO ENTITATE ETA TALDEENTZAT

2.2 ESKUMENAK

Herritarren Partaidetza, Gazteria eta Kirol Alorraren eskumenak jasota daude Iruñeko Udalaren Administrazioa Antolatzeko 2011ko Ordenantzan (2011ko 178. NAO, irailaren 8koa).

3 ZERBITZUAK, KONPROMISOAK ETA BETETZE-MAILAREN ADIERAZLEAK

Zerbitzuak	Konpromisoak	Betetze-mailaren adierazleak
Urteroko deialdia prestatzea.	Deialdia urteko lehen hiru hilekoan argitaratzea.	Deialdiaren argitaratze-data NAOn.
Jasotako eskarien balioespen-fasea.	Diru-laguntzak ematea, ezarrita dauden irizpideekin bat eta proiektuak balioetsiz.	Zenbat eskari jaso diren. Onetsitako eskarien ehunekoa, guztira jaso diren eskarien gainean Zenbat parte-hartzaile edo hartzaile izan diren guztira, onetsitako eskarietan. Zenbat langile boluntario izan diren guztira jardueretan, onetsitako eskarietan.
Ordainketa kudeatzea.	Emandako diru-laguntzaren % 75en ordainketa egitea gehienez bi hilabeteko epean, behin organo eskudunak ebazpena jakinarazi eta hortik aitzina.	2 hilabeteko epean egindako ordainketen ehunekoa, ebazpenetik aitzina.
Frogagiriak berrikustea.	Frogagiriak berrikustea, eta fotokopiak eta fotokopia konpultsatuak kudeatzea, eta jatorrizko dokumentuak eskatzaileei ematea, gehienez 3 hilabeteko epean aurkezten direnetik aurrera.	Aurkeztutako frogagiriaren % 100 berrikustea, 3 hilabeteko epean aurkezten direnetik aurrera.



ZERBITZU-GUTUNA DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA, IRABAZI-ASMORIK GABEKO ENTITATE ETA TALDEENTZAT

4 ZERBITZU-GUTUNAREN KUDEAKETA

Herritarren Partaidetza, Gazteria eta Kirol Alorreko Zuzendaritzaren ardura da behar diren neurriak hartzea konpromisoak gauzatzeko, eta, era berean, adierazleak urtean nola bilakatzen diren jarraitzeko eta kontrolatzeko. Alorrak aukeratzen duen jarraipen-sistema edozein den ere, gutxienez honako jarduketa hauek eginen dira:

- Adierazleen bilakaerari jarraitzeko bilerak, urtean behin.
- Urteko Auditoretzak, konpromisoen betetze-maila bere osoan edo zati batean egiaztatzeko, adierazleen jarraipena ikusteko eta arduradunek urte osoan zehaztutako ekintzen kudeaketa egiaztatzeko.

Hori guztia gauzatzeko da *Zerbitzu-Gutunen kudeaketarako eta jarraipenerako Gidan* ezarritakoaren arabera.

5 ARAU ETA LEGEEN ZERRENDA

- Euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen Ordenantza.
- Herritarren Partaidetza arautzen duen Iruñeko Udalaren Erregelamendu Organikoa.
- Iruñeko Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorra 2006ko otsailaren 17ko 21. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eman zen argitara.

6 ZERBITZUEN ERABILTZAILIEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Zerbitzuen erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak dira hala ***Iruñeko herritarrek a beren Udal Administrazioaren aurrean dituzten Eskubide eta Betebeharren Gutunean bilduta daudenak Municipal*** nola aurreko idatzi-zatian azaldutako arau indardunetatik datozenak.

Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 11. artikuluan ezarritakoarekin bat, honako hauek dira onuradunen betebeharrak:

- Diru-laguntzaren xede den helburua betetzea, proiektua gauzatzea, jarduera egitea edo jarduteko modua hartzea.
- Organo emailearen aurrean justifikatzea baldintzak eta betekizunak bete direla, bai eta jarduera egin dela eta diru-laguntza zertarako den eta helburu hori bete dela ere.
- Men egitea organo emaileak egin beharreko egiaztapen-jarduketei, bai eta kontrol-organo eskudunek egiaztatzeko zein finantzamendua kontrolatzeko egiten ahal dituzten beste guztiei ere, betiere jarduketa horien ondorioz eskatzen dizkieten argibideak oro eman beharko dituztelarik, halakoak udal-agiritegietan jasota egon ezean.
- Diru-laguntzaren xede diren jarduerak finantzatzeko beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik lortuz gero, horren berri ematea organo emaileari. Jakinarazpen hori jakin bezain azkar egin beharko da, eta, edonola ere, jasotako funtsen erabileraren justifikazioa egin baino lehen.
- Diru-laguntzarako ebazpen-proposamena eman baino lehen egiaztatu beharra dute egunean dituztela hala tributu-betebeharrak nola Gizarte Segurantzarekikoak.
- Iruñeko Udalarekiko tributu-betebeharrak egunean izatearen gaineko betebeharraren egiaztapena ofizioz egingo da.

ZERBITZU-GUTUNA DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA, IRABAZI-ASMORIK GABEKO ENTITATE ETA TALDEENTZAT

- Kontabilitate-liburuak, erregistro eginbidetuak eta gainerako agiriak edukitzea, behar bezala ikuskaturik onuradunari kasuan-kasuan aplikatzen ahal zaizkion merkataritzako legeek eta lege sektorialeak ezarritakoarekin bat, bai eta deialdiek edo ebazpenek egiaztapen- eta kontrol-eskumenak modu egokian gauzatuko direla bermatzeko galdatzen ahal dituzten egoera-orriak eta berariazko erregistroak ere.
- Gordetzea jasotako funtsak zertan erabili diren egiaztatzen duten agiriak, egiaztapen eta kontrol jarduketan xedea izan daitezkeen neurrian.
- Behar bezalako publizitatea egitea diru-laguntzaren xede diren programak edo jarduerak Iruñeko Udalak finantzatu dituela, betiere Deialdi honen 16. klausulan aurreikusitakoarekin bat.
- Jasotako funtsak itzultzea, Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorra horretarako zein kasu adierazi eta halakoetan.

7 LANKIDETZA ETA PARTE-HARTZEA, ALORRAREN ZERBITZUAK HOBETZEKO

Iruñeko Udalak hainbat tresna erabiltzen ditu, Udalak berak ematen dituen zerbitzuen gainean bukaerako erabiltzaileek zer balioespen eta zer iritzi duten jakitea sustatzeko. Hona hemen tresnak:

- Gogobetetze-inkestak, arreta-guneetan eta webgunean (www.pamplona.es) herritarren eskura jarritakoak, Udalak ematen dituen zerbitzuen gainean herritarrek zer-nolako gogobetetze-maila duten jakiteko.
- Sistema bat ezarria dago kexa edo iradokizun bat egiteko, dela 010 telefonoaren bidez, dela www.pamplona.es webgunearen bidez, dela aurrez aurre, Herritarrendako Laguntza Zerbitzuan (HLZ), jendaurreko ordutegian.

8 IRADOKIZUN- ETA ERREKLAMAZIO-SISTEMA

Iruñeko Udalak Oharrak, Kexak eta Iradokizunak udal-zerbitzuetan aurkezteko sistema bat jarri du erabiltzaileen eskura. Hona hemen zer bide dauden eskura:

Aurrez aurrekoa	Erregistro Orokorra / Herritarrendako Laguntza Bulegoa (Kondestablearen Jauregia, Kale Nagusia, 2 – 31001 – Iruña)
	Iruñeko Udalaren erregistro osagarriak (ikusi www.pamplona.es)
Telefonoz	☎ 010 (Iruña) ☎ 948 420 100 (Iruñeaz kanpotik deituz gero)
Bide telematikoa	Iradokizun-postontzia eta Erregistro Elektronikoa , Iruñeko Udalaren webgunean kokatua: www.pamplona.es

Iradokizuna edo erreklamazioa zer bidetatik jaso den, bide berbera erabiliko da haiei erantzuteko, gehienez ere 15 egun balioduneko epean. Epe horretan erantzun osorik ematerik ez badago, herritarrari jakinaraziko zaio zer jarduketa egiten ari diren eta zer datatan aurreikusia dagoen erantzutea.



ZERBITZU-GUTUNA DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA, IRABAZI-ASMORIK GABEKO ENTITATE ETA TALDEENTZAT

Hori guztia eginen da Udalaren Ohar, Kexa eta Iradokizunak kudeatzeko Prozeduran ezarritakoarekin bat.

9 JENDEARI ARRETA EGITEKO HELBIDEAK ETA ORDUTEGIAK

Elkarteen Etxea		
Helbidea	San Gregorio k., 28, behea. 31001 Iruña.	
Ordutegia	Aurrez aurrekoa	Astelehenetik ostiralera (11:00 – 13:30 eta 17:00 – 21:00). Abuztua: astelehenetik ostiralera (09:00 – 14:00), eta astearte eta ostegunetan (17:00 – 20:00). Itxita: uztailaren 6tik uztailaren 31ra.
	Telefonoz ☎ 010 (Iruña) ☎ 948 420100 (Iruñeaz kanpotik deituz gero)	Astelehenetik ostiralera (8:00 – 19:00). Larunbatetan (09:30 - 13:30). Sanferminetan: Egunero (09:30 – 13:30). Udako gainerako asteetan (07/15etik 09/11ra): Astelehenetik ostiralera (08:00 – 15:00).
Harremanetarako:	Bulegoetako telefonoa	☎ 948-226326
	Bulegoetako faxa	☎ 948-226328
	Helbide elektronikoa	✉ c.asociaciones@pamplona.es
	Webgunea	🌐 http://www.centro.asociacionespamplona.es 🌐 http://www.pamplona.es

10 UNITATE ARDURADUNA

Herritarren Partaidetza, Gazteria eta Kirol Alorreko Zuzendaritza

Udaletxe plaza, zk.g., 4. solairua. 31001 Pamplona

☎ 948-420266 / 948-420150 ☎ 948-420716

🌐 www.pamplona.es